



Sexu-jazarpenerako eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenerako egoeretan prebentzioa lantzeko eta esku hartzeko protokoloaren

# prozedura

Bazkide diren erakunderen batekin kontratu bidezko edo bestelako lotura duten pertsonak edota Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak berak sexu-jazarpenera eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenera dela-eta jarritako salaketa orori aplikatu ahal izango zaio.

## 1 JAKINARAZTEA ETA AHOLKULARITZA

**HELBURUA:** Jazartutako pertsonari informazioa, aholkua eta laguntza ematea, eta II. fasea (barne-salaketa eta ikerketa) prestatzea.

**EPEA:** Gehienez ere 3 lanegun.

**PROZEDURA:** Jakinarazi erreferentziazko taldeari nahi duen moduan (aurrez aurre, telefono bidez edo posta elektronikoaren bitartez). Komunikazio hori hauek egin dezakete:

- Kaltetua izan den pertsonak.
- Lekukoa izan den pertsonak. Kasu honetan, erreferentziazko taldeak biktimari jakinaraziko dio haren bertsioa ezagutzeko.

## 2 BARNE-SALAKETA ETA IKERKETA

**HELBURUA:** Ikertzea eta, kasuan kasu, esku hartzeko neurriak proposatzea.

**EPEA:** 15-20 lanegun artean.

**PROZEDURA:**

- Idatzizko barne-salaketa erreferentziazko taldeari.
- Erreferentziazko taldearen txostena.
- Txostena igorri kaltetutako erakundearen edo erakundeen organo erabakitzaile gorenari.
- Erreferentziazko taldearen eta kaltetutako erakundearen edo erakundeen organo erabakitzaile gorenaren arteko bilera.

Fase honetan, erreferentziazko lantaldeak gaian aditua den pertsona baten laguntza izango du.

## 3 EBAZPENA

**HELBURUA:** Kaltetutako erakundearen edo erakundeen organo erabakitzaile gorenak ebazpena ematea.

**EPEA:** Gehienez ere 10 lanegun.

**PROZEDURA:**

- Salaketa artxibatu ez badago ebidentzia nahikorik.
- Zehapen-espedita nahikoa ebidentzia baldin badago, eta neurri zuzentzaileak hartu.

## 4 ERREPARAZIOA

**HELBURUA:** Biktimarengan eta laneko giroan eragindako kaltea erreparatzea gomendioak aintzat hartuta.

**EPEA:** 20 lanegun, biktimak eskatuta luzatu daitezkeenak.

**PROZEDURA:**

- Biktimaren erreparaziorako neurriak hartu.
- Laneko giroa bere onera ekartzeko erreparazio-neurriak hartu.



Beti zabalik geratuko dira aukera hauek: prozedura judiziala hasi eta erakundearen protokoloa aktibatu.